

ADISKIDETZEAREN OSPAKIZUNA

Oharrak

Neurri desberdinetako harriak eraman, gutxienez partaide bakoitzak (haur eta heldu) bi. Harriok elizako erdiko korridorean banatuko dira.

Aurretik, beste saio baten, bihotz-formako paperetan idatz ditzatela bekatuak. Idaztean, damututa daudela eta ontzeko asmoa dutela adieraziko dute. Horrela, azken uneko urduritasunak alde batera utziko ditugu.

Gurutzea gailenduko da ospakizunean; honen ondoan kandela egongo da piztuta eta ontzi bat, lehen aipatutako bihotz-formako paperak erretzeko.

1. SARRERAKO OHARRA

Arratsalde on, mutiko, neskato, ama eta aitoi! Benetan "arratsalde on" da Aita Jainkoak bihotzez eskatzen dioten guztioi ematen digun maitasun eta barkamena ospatzera bildu garenontzat. Kristauok Adiskidetzearen edo Barkamenaren Sakramentu deitzen diogu ospatuko dugun honi. Gaur, katekesiko zenbait neska-mutikok lehen aldiz ospatuko duzue. Zuen gurasoek ere ospatuko dute, baina ez lehen aldiz, aurretik ere hartu baitute sakramentu hau. Lehen Jaunartzea ospakizun alaia izan dadin, elkarren adiskide izateaz batera, Jainkoarekin eta anai-arrebekin adiskidetuta egon behar dugu. Horregatik, ezinbesteko dugu barkamena eskatzea.

2. AGURRA

-Maite gaituen eta bekatutik askatzen gaituen Jainkoaren onginahia eta bakea, zuekin.

3. ABESTIA

4. OTOITZA DENOK BATERA EGITEKO



Aita Jainkoak sehaskan kulunkatu eta babestu egiten nau.

Larre gurietara narama.

Ur freskoa darien iturriak erakusten dizkit.

Eta eguzkiak berotzen duenean,
itzalik onenetara narama.

Bere besoetan lo hartuko dut!

Aita Jainkoak sehaskan kulunkatu eta babestu egiten nau.

Bere ahotsak bide zuzenetik gidatzen nau.

Bera aurretik doa eta babestu egiten nau.

Bera ondoan dudala ez naiz beldur gabez
eta ez naute leku ilunek beldurtzen.

Aita Jainkoak sehaskan kulunkatu eta babestu egiten nau.

Ezagutzen ditu nire egitasmo eta ilusioak.

Bizitzako altxorak erakusten dizkit.

Abesti alaiak txistukatzen ditu niretzat.

Lasai naiz Berarekin.

Aita Jainkoak sehaskan kulunkatu eta babestu egiten nau.

5. JAINKOAREN HITZA: Lk 15, 1-7

PARABOLA: ARDI GALDUA

- 1. KONTALARIA** Bazen ehun ardi zituen eta banan-banan bere izenez ezagutzen zituen artzaina. Goizero, eguzkia atera aurretik, mendirako bidea hartzen zuen artaldearekin, han baitzeuden larrerik guriak eta urik freskoena... Bidean, beren izenez deitu eta ferekatu egiten zituen...
Ardi guztiak osasuntsu eta sendo zeuden, garbi eta ondo zainduta. Guztiak bat izan ezik, hanka bat besteak baino motzago izanda, herrenka zebilen-eta.
- 2. KONTALARIA** Behin batean, mendian zeundela, ilundu egin zuen bat-batean: trumoiak jo zuen, tximistak ziren eta euria ari zuen. Artzainak lasterkari eman zion eta ardiak arineketan joan ziren bere atzetik arditegirantz. Herrenka zebilen ardia, atzean geratu zen. Gainerako ardiak harrapatu nahirik zebilen, baina ezin zuen haien atzetik jarraitu. Arrastaka zeraman bere hanka herrena, besteen oinatzak bilatuz, baina urak ezabatu egiten zituen. Gero eta urrunago zegoen artaldetik. Erausiak ez zuen etenik eta ilunabarra sartzen hasi zen.
- 1. KONTALARIA** Bitartean, artzaina, eta bere atzetik artaldea, arditegira heldu ziren. Ohikoa zuenez, atetik pasarazi zituen banan-banan zenbatzeko...
- ARTZAINA** 94... 95... 96... 97... 98... 99... Zer gertatzen da? Bat falta zait! Ezinda izan. Seguruenik gaizki zenbatu ditut.
- 1. KONTALARIA** Eta berriz zenbatu zituen.
- ARTZAINA** 94... 95... 96... 97... 98... 99... Ardi bat galdu zait! Seguruenik herrenka dabilen ardi gaixoa izango da. Non ote dago?
- 1. KONTALARIA** Auzotarrek esan zioten:
- AUZOTARRAK** Ez arduratu ardi batengatik. Bihar, eguzkia ateratzeaz batera, denok aterako gara bere bila.
- 2. KONTALARIA** Gau iluna etorri zen. Herrenka zebilen ardia mendian bueltaka ari zen, bakarrik eta galduta. Bee egin zuen behin eta berriro, baina inork ez ion erantzun. Bee egin zuen ozenago, bainaotso gosetien uluak baizik ez zituen entzun urrunean...
- 1. KONTALARIA** Ardi galduak beldurra sentitu zuen. Egundoko beldurra. Orduan, lasterkari ekin zion itsu-itsuan eta herrenka, eta amildegian behera erori zen. Egin zuen ahalegina leku hartatik ateratzeko, baina sasi eta arantza artean harrapatuta geratu zen. Eta artzainak, bitartean, ardi galdua besterik ez zuen gogoan...
- ARTZAINA** Eguraldi eskas honekin galtzea ere! Bere bila noa oraintxe bertan!

- 2. KONTALARIA** Auzotarrek zera zioten:
- AUZOTARRAK** Nola aterako zara, ba, eguraldi honekin? Euria ari du barra-barra eta gautu du. Ez duzu aurkituko. Itxaron bihar arte eta lagunduko dizugu.
- 2. KONTALARIA** Baina artzainak ez zien jaramonik egin. Makila hartu, soingainekoa jantzi, eta korrika eta presaka atera zen, iluntasunaren erdian, ardi galduaren bila. Bere izenez deitu zuen; lasterka ibili zen alde batetik bestera; mendixketan gora eta behera ibili zen; garrasi egin zuen ahotsik gabe geratu arte. Ez zion axola ez euriak, ez hotzak ez nekeak... Arriskuan zegoen ardiak kezkatzen zuen bakarrik. Aurkitu egin behar zuen berandu baino lehen...
- 1. KONTALARIA** Alde guztietan bilatu ondoren, itxaropena galtzear zela, balaka sentitu zuen urrunera... Ezaguna zuen balaka hura, jakina baietz! Bere ardia zen. Eta bizirik zegoen!
Lasterka joan zen amildegirantz, sasi eta arantzetatik askatu, lepoan hartu eta solorik solo bueltatu zen arditegira.
- 2. KONTALARIA** Arditegira heldu eta zauriak lotu zizkion eta berotan jarri zuen ahizpen artean, lastoaren gainean. Artzaina pozez gainezka zegoen eta gauaren erdian, auzotarrak esnatzera joan zen.
- ARTZAINA** Adiskideok, aurkitu dut, aurkitu dut! Galduta zegoen, ia hilda... Baina aurkitu dut! Tira, zatozte etxera zerbait hartzera! Ospatu egin behar dugu!
- 2. KONTALARIA** Eta parabolak kontatu ondoren, Jesusek esan zuen:
- JESUS** Jainko gure Aita pozez zorutzen dago onbidetik ez doan eta jarrera eskasa duen seme edo alabaren bat etxera onik itzultzen denean. Artzain Ona da: gure bila ateratzen da, besoetan hartzen gaitu, barkamenaren besarkada ematen digu, berriz etxera eramaten gaitu eta bere Mahaiaren inguruan esertzen gaitu.

Jaunak esana

7. AZALPENAK

8. BARKAMENAREN SAKRAMENTUA

- Barkamenaren dinamika

Begira, eleizako erdiko korridorean harri asko dago. Gure pekatuak irudikatzen dituzte, gure maitasunik eza besteen, geure buruaren eta Jainkoaren alde. Lehen begiratuan polit ere izan daitezkeen harriok, batzuetan gure oinetakoetan sar daitezke, edo burua kolpatu, min asko eginez.

On egiten ez dugun bakoitzean, maitatzeari, norbaiti laguntzeari uko egiten diogun bakoitzean, harria jartzen dugu bidean eta guk geuk, edo atzetik datozenek, estropezu egiteko arriskua dugu.

Alderantziz, egiten duguna maitasunez egiten dugunean, besteek egiten dutena epaitzen ez dugunean, gure hutsegiteak aitortzen ditugunean eta zuzen jokatzeko dugunean, bidetik harriak kendu egiten ditugu eta estropezu egiteko arriskua ekidin. Horrela, Jesusek nahi duena egiteaz gainera, Jainkoaren Erreinua munduan agertzeraz ematen dugu.

Harri hauek dira gure ospakizunaren ikur. Jesusek dei egiten digu geure barrura begira dezagun, nolakoak garen eta zein jokaera dugun ikusteko: aldendu garen, galdu garen, galduta gauden, besteak zauritzen dituzten harriak ipintzen edo jaurtitzen ditugun... Hauxe erakutsi nahi diegu guztiei, baita Jainkoari ere: aldatzeko, harririk ez jaurtitzeko, bidean harririk ez uzteko, bidetik ahalik eta harri gehien kentzeko... prest gaudela, guztiok aurrera egin dezagun Jesusen atzetik jarraitzeko bidean eta bake eta maitasun handiagoko munduaren eraikuntzan ere protagonista izan gaitzen.

- Gogoeta egin eta berrikusi dezagun pentsatuta eta bihotzetan idatzita daukaguna. Batzuetan, harriak jartzen ditugu bidean...
 1. Adiskidea iraintzen dudanean, adiskideaz gaizki hitz egitean, eta norbaiten lepo barre egin eta gutxiesten dudanean...
 2. Besteen premiez arduratzen ez naizenean eta nire laguntza behar duenari jaramonik egiten ez diodanean...
 3. Daukadana alferrik galdu eta zaintzen ez dudanean: gurasoen maitasuna, bizilekua, jatekoa, arropak, jostailuak, eskola-materiala...
 4. Biziaren eta izadiaren oparia Jainkoari eskertzen ez diodanean...

Jainko gure Aitak, gauza guztien gainetik maite gaituela eta beti barkatzeko prest dagoela diosku Jesusek. Nahiz eta bidean harriak ipini, Jainkoa beti dago prest eskua emateko, estropezu egin eta eror ez gaitzen. Jainkoak konfiantza du guregan eta Jesusen antzeko izan gaitzkeela uste du, hau da, gizatasun eta senidetasun handiagoko mundua eraikitzen laguntzeko gauza garela pentsatzen du. Eta guk, uste osoa ote dugu Jainkoarengan?

- **Guztiok batera otoitz egingo dugu**

*Jesus, askotan, bakarrik neure buruarengan
pentsatzen dudala aitortzen dut,
eta ez naizela besteez arduratzen;
bakarrik neure gustuko dudana
egin nahi dudala,
eta ez dudala etxean laguntzen,
eskolan ez dudala arretarik jartzen,
jendea ez dudala ondo hartzen
eta ez ditudala gauzak banatzen.
Jesus, barkamena eskatzen dizut,
lagundu zure antzeko izaten.
Poza eta bakea eraman nahi dizkiet
nire inguruko guztiei.
Lagundu gaur eta beti.*



ABSOLUZIOA ETA PENITENTZIA

Banan-banan hurbilduko gara ospatzailearengana. Bidetik pare bat harri kenduko ditugu eta saski batera bota. Ondoren lagun bakoitzak (haur edo heldu) zer aldatu nahi duen, zer errepikatu nahi ez duen, zertaz damutzen den esango dio apaizari. Azkenean, "barkatu, Jesus" esango du.

Jainkoarekiko eta anai-arrebekiko adiskidetasuna egia bihurtzeko eta hobeak izateko borondatea egiaztatzeko, apaizak ekintza bat edo bi proposatuko ditu, aipatutako gauzetan hobera egiteko.

Jarlekura bueltatu aurretik lagun bakoitzak bere paperezko bihotza kurutzearen ondoan dagoen ontzian utziko du. Katekistak, kandelaz baliatuz, erre egingo ditu paperak **IRAKURRI GABE**, gure bekatuak, Jainkoaren maitasun eta barkamenari esker, desagertu egiten direla irudikatuz.

9. GURE AITA

10. ESKER ONEKO OTOITZA ETA BEDEINKAPENA

Jainko Aita ona, eskerrik asko zure barkamenagatik;
eman goiargia inoiz ahantz ez zaitzagun eta
elkar barka eta maita dezagun
Zuk barkatzen eta maitatzen gaituzun bezala.

Bedeinka zaitzatela...

11. ABESTIA: ESKERRIK ASKO JAUNA